

NAFARROA MAHAI SEKTORIALA.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA **Baremoan berrikuntza gehiago!**

- 1.2 atalean (kidegoan aintzintasuna) interino bezala emandako urteak kontatuko dira. Departamentuak ofizioz eginen du eta kontsultatzeko aukera emango du lekualdatzeko aplikazioan.
- 4. puntuan ere interino moduan betetako funtzioak (zuzendaritza, tutore...), puntuagarriak izanen dira. 4.1 eta 4.2 ofizioz eginen dira, 4.3ari dagozkionak ikastetxean eskatu behar dira (Koordinazioa, tutore lanak...).
- 6.4 eta 6.6 ataletan ere interino moduan egindakoa puntuagarri izanen da (unibertsitateko praktiketako ikasleen tutore, Departamentuan betetako funtzioak).

Lekualdatze lehiaketa urriak 17tik azaroaren 7ra izanen da.

STEILASen hitzaldi informatiboak emanen ditugu urriak 18 (euskeraz) eta urriak 20 (gazteleraz), arratsaldeko 17.00tan.

ESTABILIZAZIO PROZESUA

Prozesu honen inguruan ez dago informazio ziurrik, hala ere, gaurko Mahai sektorialean zenbait informazio aurreratu dizkigute:

-Merezimendu-lehiaketarako partehartzea azaroak 21ean irekitzea da asmoa. Prozesu hau erkidego guztietan parte hartzeko amankomuna izanen da, EAE, Katalunia eta Andaluzia salbu, hauetan partehartzea jada irekita dago.

Merezimendu-lehiaketa bidez funtzionario bihurtzen direnek ez dute praktikaldirik egin beharko.

-Prozesu honen LEP trantsitorioa 2024ean egiteko asmoa dute.

STEILASek oposizio hori zerrenden kudeaketatik bereiztea eskatu du, modu honetan ez litzatekeelako derrigorrezkoa izango oposaketetara aurkeztea lanpostua mantentzeko.

Ozen salatu dugu ere estabilizazio prozesuaren inguruan ez dela ezer ere negoziatu eta lanpostu kopurua oso murrizta dela, honek ez duela Nafarroako hezkuntza publikoan egonkortasuna lortuko.

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK

Aurreko asteko [Errege Dekretuaren](#) harira, titulazio baldintzak betetzen dituzten Lanbide Heziketako irakasle teknikoak Bigarren Hezkuntzako kidegora (590) pasatuko dira. Funtzionarioen kasuan atzerako eragina izanen du 2021eko urtarriletik, aldiz, interinoen kasuan, momentuz ez, negoziatzeke baitago.

Interinoentzako eskubide berdintasuna eskatu dugu, eta irakasle teknikoentzako soluzioa.